

¡EUSKALDUN LEYALA!

¡Agur Migel! Gure mundu otz ontatik, eraman zaitu Jaungoikoak bere biotz beroaren ondora. ¿Ta orain nork bete beardu zuk bezela gelditudan utsunea?.....

JULIO UZCUDUN

* *
* *

MALKO BAT

Zure bizitza, sega beltzaren
abo zorrotzak du moztu,
ta biyotzaren berotasuna
izotzak bezela oztu,
gero Jaunaren kolko zabalak
zaitzan epelean poztu.

MANUEL URANGA

* *
* *

ERIoTZA

Gure zorrak kitatzen
ditu azken otzak,
edo Zerutikako
aginte zorrotzak,
au bera egin dizu
Migel, eriotzak.

RAFAEL BERRONDO

* *
* *

¿ZERI NEGAR EGIÑ?

Guztiyak dakiguna da Jaungoikuak beriak gaituela, ta bere aginteak zuzenak dirala; alaz guztiyaz ere malkoak darizkigu tantoka, tantoka Migel. ¡Au lana! bañan, ¿zeri negar egiñ? Jauriaren kolkuak epel zaitzala.

PEDRO SOPELARTE